

## **BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**

4. Batzarraren AKTA.  
2017ko apirilaren 4a – 17:00 h

### **BERTARATUAK**

Juan María Aburto (Bilboko Alkatea)  
Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia, presidenteordea)  
Nekane Alonso (Kultura zinegotzia)  
Marta Ajuria (Ekonomia eta Ogasuneko zinegotzia)  
Amaia Arenal (Udalberri Udal taldea)  
Ainara Aretxabaleta (EAJ-PNV udal taldea)  
Alba Fatuarte (EH-Bildu udal taldea)  
Inés Ibáñez de Maeztu (PSE-PSOE Udal taldea)  
Jesús Sanz Salamanca (PP udal taldea)  
Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)  
Mari Jose Arrieta (Euskara zuzendariordea)  
Libe Agirre (kazetaria)  
Genar Andrinua (Athletic Club)  
Jokin Gorozika (Labayru Fundazioa)  
Jon Maguregi (Bilboko euskaltegiak)  
Xabier Monasterio (kultur eragilea)  
Jon Simón Gartzia (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)

### **EZIN ETORRIA ALDEZ AURRETIK ADIERAZI DUTE**

Alexander Arauzo (GOAZEN BILBAO udal taldea)  
Ana de Castro (Bizkaiko Foru Aldundia)  
Xabier Otxandiano (Garapen ekonomikoa, Merkataritza eta Enplegu zinegotzia)  
Andrés Urrutia (Euskaltzaindia)  
Jon Zárata (Bilbao Dendak)

### **IDAZKARITZA TEKNIKOA**

Idoia Postigo (Bilbao Metropoli-30)  
Lander Solozabal (Labayru Fundazioa)

## AZTERGAIK

### 1.- AURREKO BILERAREN (2016-10-20) AKTA ONARTU.

Aurreko bileraren **akta onartu egin da.**

### 2.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN AZPIBATZORDEEN AURRERAPENAK AZALDU ETA ZEHAZTUTAKO EKINTZAK PROPOSATU.

Koldo Narbaizak **Mari Jose Arrieta aurkeztu du.**

Ondoren, azaldu du 2016ko urriaren 20tik hona **hiru azpibatzerdeak** (Euskaltegiak, Hedabideak eta Euskara-elkarteak) **martxan** egon direla, eta bakoitzak **bina bilera** egin dituela. Bilera horietan **parte-hartzaileen kopurua handia** izan da, eta **lankidetzarako giro aproposa** egon da. Bilerotan, alde batetik, **etorkizunerako ikuspena adostu** zen; eta, bestetik, **ekintza zehatzak proposatu** ziren. Horren ostean, ekintzak bozkatu egin ziren, lehentasunak markatze aldera. Parentesien artean agertzen diren zenbakiak botoak dira. Bestalde, proposatu ziren ekintza asko zeharkakoak ziren; hau da, azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu ziren.

Euskaltegien azpibatzerdearen izenean, Jon Maguregik azalpen hauek eman ditu:

#### **Etorkizunerako ikuspena:**

- **Aniztasuna:** kolore guztiak, etorkinak, ghetto-rik ez...
- **Interes orokorra:** babesa, erabilera arlo guztietan...
- **Elkarlana:** bateragunea, "engranaje" berdina, denok batera, mugimenduan...
- **Nortasuna:** identitatea, kultura erreferente bihurtzea, turismo (kanpo irudia)
- **Modernitatea:** teknologia, sare sozialetan...

#### **Proposatutako ekintzak:**

- Ikasleentzako Udalaren diru-laguntzen politika aztertu (21).
- Turistentzako baliabideak sortu eta eskaini (hiztegiak, app-ak, eskuorriak,...) (5).
- Udalaren ikurra euskaltegietan jarri, elkarlana erakusteko (3).
- Euskaltegiak eta euskara-elkarteak bisitatzekeo jardunaldiak

**Euskara-elkarteen azpibatzordearen** izenean, Ainara Aretxabaletak azalpen hauek eman ditu:

**Etorkizunerako ikuspena:**

- **Integrazioa:** kultur guztiak biltzeko, elkarbizitzarako tresna, jendea bateratzeko, denok batera, komunikaziorako tresna...
- **Elkarlana:** ahaleginak, gailurra lortuta, ezinezkoa posible bihurtu...
- **Nortasuna:** Euskalgintza, tradizioa Bilboko kulturean, euskararen gaztetasuna, teknologia...
- **Esperientzia positiboa:** euskera disfrutatzen elkarrekin...

**Proposatutako ekintzak:**

- Euskara-elkartek lagundu (diru-laguntzak, langileak, baliabideak...) (8)
- Berbalaguna proiektua Bilbo osora zabaldu modu bateratuan (4)
- Esperientzien trukeen aurkezpena egin eta publikoari erakutsi (3)
- Euskararen aldeko eragileentzako foro iraunkorra sortu (1)

**Hedabideen azpibatzordearen** izenean, Libe Agirrek azalpen hauek eman ditu:

**Etorkizunerako ikuspena:**

- **Normalizazioa:** posibleagoa, arlo guztietan, erreferenteekin, presentzia, bizia, babesa...
- **Nazioartekoa:** globalizazioa, digitalizazioa, teknologia, modernitatea, aniztasuna, aberastasuna...
- **Tradizioa (iragana) eta etorkizuna:** ohiturak, erroak, nortasuna...
- **Pertsona ardatz:** gizakiok erdigunean, talde lana, ahaleginak...
- **Hedabideetan:** espezializazioa, sorkuntza, erreferenteak, presentzia..

**Proposatutako ekintzak:**

- Hedabideak lagundu euskara gehiago erabili dezaten: dirua, baliabideak... (11).
- Euskarazko hedabideen ekosistema indartu (9).
- Solaskide euskaldunak ezagutarazi (9).
- Erakundeen publizitatea baliatu euskararen aldeko prestigioa lortzeko (6).
- Udalak euskarazko informazio-iturriak (5).
- Hedabideen kolaboraziorako-sarea sortu (5).
- Hedabideetan euskararen kuota kualitatibo eta kuantitatiboak aztertu eta inplementatu (4).

- Euskararen eta euskaldunon errealitatea adierazi (hiztunen euskara desberdinak: mailak eta euskalkiak) (3).
- Euskararen aldeko eragileak koordinatu, babestu, goraipatu... (1).
- Sentsibilizazio-kanpainak antolatu. Ad: Euskaraz hitz egiteko ikurrak sortu eta zabaldu (1).
- Euskara bera hitz egiteko gaia izan dadin lan egin.
- Hedabideetan euskarak zer nolako presentzia edo erabilera duen neurtu.
- Hedabideak eta euskara Bilboko kulturaren arloan txertatu.

Lander Solozabalek azaldu du zeintzuk izan diren **azpibatzerde batean baino gehiagotan agertu diren ekintzak:**

- Etorrin, guraso, merkataritza eta talde zehazterako baliabideak.
- Baliabideak: webgunea, sare sozialak, euskarazko mapa eta agenda...
- Hizkuntza-paisaia euskara zabaldu.
- Gazteentzako ekintza gehiago eskaini (aisialdia, kirolak, musika...).
- Euskarazko erreferenteak zabaldu.
- Kultura arloko ekintza.
- Lehenengo hitzak euskaraz.

### **3. HURRENGO PAUSOAK PROPOSATU.**

Jarraian, azaldu egin da zeintzuk izango diren **Udalak proposatzen dituen hurrengo pausoak:**

- Lantalde edo komisio bat sortu Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta beste erakundeekin euskaltegien diru-laguntzak aztertzeko.
- *Bilbao Turismo* eta *Bilbao Ekintzarekin* harremanetan jarri merkataritzan eta turismoan euskara ekintzak bultzatzeko eta bermatzeko.
- Hiru azpibatzerdeen zeharkako lana bultzatu: ate irekien jardunaldiak, Udalaren ikurrak, paisaia euskaraz, esperientzien trukea...
- "Lehenengo hitza euskeraz, naturaltasunez" kanpaina egin.
- Udalak konpromisoa hartu ordenantzetan eta araudian legerari jarraipena emateko, euskararen paisaia azpiegitura eta erakin publikoetan bermatzeko. Gobernu Batzordera eraman
- Sare sozialetan hastaghi berria sortzea #bilboeuskeraz, euskarazko ekintza guztiak identifikatzeko eta bateratzeko

- Azkue Fundazioarekin harremanetan jarri "Euskara mapa"ren egitasmoa bultzatzeko.
- Kirol-ekintzetan bermatu umeeekin egongo diren monitoreak euskaldunak izango direla.
- Udalaren konpromisoa landu.

Lan hauek Udalaren ardurapekoak dira. Euskara Zuzendariordeak hartuko du hauek bideratzeko ardura.

#### **Batzordeak azpibatzerdeei ekintza hauek zehazteko eskatzen die:**

Azpibatzerdeek proposatutako ekintzen artean ondorengo hauek zehaztasun gehiago behar dute. Aurrerantzean landuko dira.

- Euskara-elkarteko laguntzak (Euskara-elkartek).
- Etorrin, guraso, merkatari eta talde zehaztuzko ekintzak (Euskara-elkartek eta Euskaltegiak)
- Euskarazako hedabideen ekosistema indartu (Hedabideak)

#### **Azpibatzerdeen ardurapean geldituko diren ekintzak:**

- Euskaltegiak eta euskara-elkartek bisitatzeko jardunaldiak (Euskaltegiak eta Euskara-elkartek).
- Berbalaguna proiektua zabaltzea (Euskara-elkartek).
- Hedabideetan euskararen kuota kualitatiboa eta kuantitatiboa aztertu eta inplementatu; solaskide euskaldunak ezagutarazi; euskara eta euskaldunon errealitate adierazi, euskara bera hitz egiteko gaia izan dadin lan egin (Hedabideak).

#### **4. GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK.**

- Hedabideen azpibatzerdearen kasuan, aipatu da errealitate oso desberdinak jasotzen direla. Alde batetik, gaztelaniazko komunikabideak daude, eta haien aurrerapausoak euskara poliki-poliki sartzeko; eta, beste alde batetik, euskara hutsezko komunikabideak. Bigarren kasu honetan, egoera nahiko larrian daude hedabide horiek eta beraien biziraupena bermatzea ezinbestekoa da. Horregatik, ekintzen lehentasunaren irizpideak aztertzea proposatzen da.

- Ekintza zehatzen gainera, zeharkakotasuna eta helburu orokorrak ere kontuan hartu behar dira. Hala nola:
  - o Motibazio-kanpainak egin
  - o Ezagutza ziurtatu euskaltegietatik
  - o Erabilera sustatu
  
- Zeharkako gai horiek landu ahal izateko, hiru azpibatzerdeak tarteka elkartzea proposatu da.
  
- Nabarmendu da aurreko batzerde bileratik gaurkora proposatutako hiru batzerdeak osatu direla, eta talde bakoitzak bi bilera izan dituela. Horrek esan nahi du lana egin dela eta aurrera begira modu berean jarraitu behar dugula.
  
- Udalaren Erabilera Planari eta ESEPi buruzko informazioa eskatu da. Batzerdearen hurrengo bilera batean gai hauen berri emateko eskaria egin da.
  
- Hiria antolatzeko plan orokorraren berrikuntza egiten ari direnez, eta zeharkako gaien artean hirigintzaren eta euskararen normalizazioaren arteko harremana ere sartzan denez, proposatzen da horren inguruko ikerketa kideei ekartzea, eragileekin konpartitzeko eta hausnarketa egiteko.

Alkateak eskertu egin die parte hartu dutenei etorri izana, eta gonbidatu egin ditu ostegunean, apirilaren 6an, arratsaldeko 18:30ean Korrikan parte hartzera, Udalaren kilometroan.

Bilbon, 2017ko apirilaren 4an

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA**  
**Mari Jose Arrieta**